



Arartekoaren 2014S-2063-11 ebazpena, 2014ko apirilaren 7koa. Horren bidez, Berangoko Udalari gomendatzen zaio udalerrian egiten diren noizbehinkako azoketan eta merkatuetan salmenta-postuak eskuratzeko irizpideak eta esleitzeko prozedura zehaztu ditzala.

Aurrekariak

1. Lurrin eta kosmetikoen esku-langile batek jakinarazi digu zailtasunak dituela Berangon egiten diren noizbehinkako azoketako eta merkatuetako salmenta-postuak esleitzeko prozesuetan parte hartzeko.

Erreklamaziogileak dioenez, udalerrian urtero egiten den nekazaritza eta esku-langintza azokan parte hartu ahal izateko bere eskaera aintzat hartzeko eskatu zion Berangoko Udalari 2011. urtean. Halaber, saltzaileek salmenta-postu bat eskuratzeko bete beharreko baldintzei buruzko informazioa ere eskatu zuen erreklamazioan.

Azken finean, gainerako saltzaileekiko lehia eta baldintza beretan parte hartu ahal izateko asmoa du erreklamaziogileak udalerrian antolatzen den azokan.

2. Erreklamazioa jasota, informazioa eskatu genion Berangoko Udalari, aurkezturiko eskabideen inguruan jarraituriko jarduketan berri izateko.

Horri erantzunez, txosten bat jaso genuen, non tokiko elkarte batek azoka antolatzen izan duela azaltzen zen (Simon Otxandategi Dantza Taldea). Berangoko Udalak elkarteari lagundu baino ez dio egiten. Azoka egiteari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak hitzartutako ikuskapen zerbitzuak 2010. urtean uste zuen kexa aurkeztu zuenak produktu kosmetikoak eta ustez sendagarriak diren beste batzuk saldu zituela. Ikuskapen-aktaren arabera, *"horrelako produktuak saltzea debekatuta dago Bizkaiko azoketan"*. Halaber, Bizkaiko azokei dagokienez, Jata-Ondo landa garapenerako agentziaren erreferentziako zerrendan begiratzea gomendatzen zitzaaien antolatzaileei txostenean. Zerrendan, nekazaritza ustiapeneko erregistroa duten eta produktuak behar bezalako osasun bermekin egiten dituzten ekoizleak agertzen dira. Gainera, Bizkaiko azokak antolatzeko eskuliburua eskatzea ere gomendatzen da.



Berangoko Udalak txostenaren berri eman zion erreklamaziogileari. Txostenak zekarrenez, Bizkaiko azoketan debekatuta dauden produktuak saldu ziren salmenta-postuan.

Udal planteamendu horren aurrean, alegazio idazkia aurkeztu zuen erreklamaziogileak, eta bertan azaldu zuen azokan parte hartzea ukatzeko prozedura Zuzenbidearen kontrakoa zela. Hala azaltzen zuen ez zettorrela bat, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, salmentako produktu sendagarriak izateari buruz emandako txostenean egin zen balorazioarekin. Erreklamaziogileak zioen egiten dituen produktuak ez direla sendagarriak, baizik eta sendabelarrak, ukenduak eta argizari naturalak dituzten kandelak direla.

Ondoren, erreklamaziogileak dio ez duela jaso alegazio idazkiaren erantzunik eta ez duela aukerarik izan ondoren udalerrian 2012an eta 2013an izandako ekitaldietan parte hartzeko. Horrengatik guztiagatik, berriz dio eskubidea duela postuak eskuratzeko baldintzak zein diren jakiteko eta gainerako saltzaileekiko lehian eta baldintza beretan parte hartzeko udal horrek antolatzen dituen esku-langintzako azoketan.

Erreklamazioan eta administrazioaren erantzunean azaldutakoak baloratu ondoren, erakunde honek kexa espedientearen inguruak egiten dituen gogoetak helaraziko ditugu orain.

Gogoetak

1. Erreklamazioaren xedean, Berangon 2011. urtean eta ondorengo edizioetan eginiko esku-langintzako azoketan parte hartzeko eskaerari erantzunik eman ez izana aipatzen da. Erreklamaziogileak dio ez dagoela aurretiko baldintza publiko eta zehatzik udal azoka horretan parte hartu ahal izateko, gainerako ekoizleen baldintza beretan parte hartzeko modua izan dezan. Halaber, uste du ez datorrela bat zuzenbidearekin azoka horretan parte hartzea ukatzeko prozedura.

Aztergai dugun kasuan, udalen herri guneetako noizbehinkako merkatuetako salmenta arautzen duen araudia izan behar da gure abiapuntua. Udal administrazioak kontuan izan behar ditu arau horietan ezarritako lege irizpideak, merkataritza jarduera hori prebenitu, kontrolatu eta arautzeko bere eskumenak erabili baino lehen.



– **Establezimenduak ezartzeko eta zerbitzuak liberalizatzeko egungo testuingurua.** Establezimendu eta salmenta ibiltariko merkataritzaren inguruko administrazio kontrolaren posibilitateek lotura zuzena dute Europar Batasuneko estatuko kideen erregulazioa Zerbitzuen Zuzentzura nahitaez egokitu beharrarekin. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an barne merkatuko zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EEko Zuzentzura, betebeharrak hau inposatzen zaie estatu kideei: Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Ituneko 49 eta 56. artikuluetan ezarritako zerbitzuak emateko eta establezimenduak ezartzeko askatasunaren kontrako justifikaziorik gabeko barrera eta traba juridiko guztiak desagerrarazteko.

Zuzentzura hori betez, zerbitzuen jarduerak askatasunez eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean, zerbitzu jardueren eskuhartze publikoa eraendu behar duten xedapenak eta printzipio orokorrak ezarri dira. Zuzentzura horren arabera, nahitaezkoa da aldaketa garrantzitsuak egitea estatuko eta autonomietako araudian eta udal ordenantzetan merkataritza jarduerak egiteko baimenen exigentzia araupetzen dutenean. Zehazki, salmenta ibiltariaren arloan, martxoaren 1eko 1/2010 Legea, Txikizkako Merkataritzaren Antolamenduari buruzko urtarrilaren 15ko 7/1996 Legea aldatu duena (TMAL), eta salmenta ibiltaria arautu duen otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretua onetsi dira:

Zehaztu egin behar da TMAL eta ondorengo 199/2010 Errege Dekretua aplikatzen direla salmenta ibiltarian eta dendariak establezimendu iraunkorretik kanpora eginiko noizbehinkako salmentan. Merkataritza jarduera horren barruan, nolana ere, herri bideko salmenta sartzen da, baita noizbehinkako merkatuetan eginikoa ere. Txikizkako merkataritzari buruzko legerian ez dira salbuesten nekazaritza edo eskulangintzako produktuen azokak, zeren eta aparte sartzen baitu nekazaritza, eskulangintza eta abarreko produktuak saltzeko merkataritza jarduera argia.

Horrek guztiak funtsezko aldaketa dakar salmenta ibiltarirako, eta euskal herri botereek kontuan izan behar dute araudi hau indarrean sartu denetik. Araudi berria abiapuntu hartuta, herri lurzoruaren erabilera mugatua izan dezake oinarria baimena emateko prozedura bete behar izateak, edo interes publikoko beste kasu tasatu batzuk. Hala ere, araudiak ez du ahalbidetzen egin beharreko zerbitzu jardueraren edukia mugatzeko baldintzarik edo beharkizunik, zuzenbide komunitarioaren printzipioekin bateragarria den justifikaziorik izan gabe.

– **Salmenta ibiltarirako udal baimena udal guneetako merkatuetan.** Kasu honetan, udalaren herri guneetan egindako salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa, herri jabariko erabilera berezia ahalbidetzen duen neurrian, udalaren baimen araubidearen menpe dago. Publikoa izan behar du baimena emateko prozedurak, eta irizpide argi, erraz,



objektibo eta aurreikusteko moduko araberakoa izan behar du izapidetzeak. Halaber, beharrezkoak, neurrizkoak eta ez diskriminatzaileak izan behar dute baimena emateko beharkizunek.

Udal organo eskudunak baimendu beharko ditu merkatua horiek. Izan ere, hari dagokio merkatuen kokapena, merkatuak egiteko datak, baimendutako salmentako produktuak, merkatari partaideen kopurua, kudeaketa modalitatea eta salmenta baimenak esleitzeko prozedurak eta beharkizunak ebatzea.

Merkatu batasunaren bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Lege berrian, operadore ekonomiko guztien zirkulazio askatasuna eta establezimendurako askatasuna bildu da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiek behar, proportzionaltasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioei buruz emandako jurisprudenziarekin bat etorriz.

Establezimendurako askatasun horren baitan, debekatuta dago baldintza diskriminatzaileak ezartzea, baldin eta zuzenean edo zeharka bizilekuari buruzko baldintza badakarkio saltzaileari, edo bestelako beharkizunak, hala nola lanbide elkarteetan edo erregistroetan inskribatuta egotea. Udal bakoitzak zehaztuko du salmenta ibiltarirako edo salmenta ez sedentariorako baimena emateko eta hutsik dauden salmenta-postuak estaltzeko prozedura, baina nolana ere lehiaren araubidea errespetatu behar da. Halaber, baimena emateak ez du ekarriko berriztapen automatikorako prozedurarik, ezta bestelako abantailarik ere emaila utziliarrantzat.

Garrantzizkoa da esatea 7/1996 Legearen 6. artikuluan xedaturikoa, hots, inola ere ez dela beharkizun ekonomikorik ezarriko produktu edo zerbitzu mota jakin bat edo jatorri jakin batekoa komertzializatzea eskatzeko.

Hori guztia kontuan izan behar da edozein produktu motaren noizbehinkako udal merkatuak sustatzeko eta kudeatzeko, hala nola elkarteek edo partikularrek udalaren titularitateko guneetan sustaturiko aldizkako azokak. Nekazaritza edo eskulangintzako produktuen azokak antolatzean izan daitezkeen inguruabar bereziei kalterik egin gabe, baimena emateko eta baldintzak ezartzeko udal eskumena ezin eskuordetu dakieke beste erakunde publiko edo pribatu batzuei baldin eta, aldi berean, horrelako merkatuak antolatzeko ardura badute.

Alde horretatik, udal administrazioek eskumena dute aldizkako merkatuetako eta noizbehinkako azoketako salmenta ibiltaria tokiko ordenantzaren bidez arautzeko. Xedapen orokor horiek nahitaez errespetatu behar dituzte zerbitzuak emateko eta establezimenduetarako askatasunerako arestian aipaturiko printzipio orokorrak eta xedapenak.



– **Eskakizun higienikoak eta sanitarioak betetzea.** Era berean, legerian arauturiko eskakizun higienikoak eta sanitarioak bete behar dira nahitaez salmenta-postuak eskuratu ahal izateko.

Osasunari buruzko indarreko araudiak dakartzan eskakizunak izan behar ditu aintzat salmenta ibiltariari buruzko araudiak. 199/2010 Errege Dekretuaren 4. artikulua arabera, osasunari buruzko araudiak ezarritako beharkizunak bete beharko ditu elikagaiak eta belar eta dietetikako produktuak saltzeko baimena duen titularrak.

Ildo horretan, kasu zehatz honi dagokionez, medikamentuen eta osasun produktuen bermeei eta zentzuzko erabilerari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legean, produktu kosmetikoak eta sendabelarrekin eginiko beste batzuk saltzeko arau-eremua xedatu da. Araudi horretan ezarritakoaren arabera, osasun administrazioek dute, haien eskumenean eremuaren baitan, Lege horretan ezarritakoa betetzen dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak direnak egiteko eskumena.

Osasun araudiaren arau-haustea izan den ezartzeko zigor-prozedurari dagokionez, zehaztu beharra dago ahalmen horretan nahitaez bete behar direla Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Euskal Herri Administrazioen Zigor Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoak. Legeria horrek ezartzen ditu administrazioak zigor ahalmena erabiltzeko jarraitu beharreko prozedura, araubide juridikoak eta printzipioak. Inola ere ezin ezar daiteke zigortzeko neurririk eskumen hori duten organoek aurreikusitako aurretiazko prozedura jarraitu gabe, hala nola saltzaile bati geroko ekintzetan parte hartzea galaraztea.

– **Berangoko nekazaritza eta eskulangintza azoketako postuak esleitzeko udal kontrola.** Berangoko Udalak igorritako txostenean ez da aipatzen tokiko merkatuak kudeatzeko udal ordenantzarik. Erreklamazioan azaldutako kasuan, Berangoko Udalak aitortzen du, postuen banaketari dagokionez, elkarte antolatzaileari lagundu baino ez diola egiten udalak, eta interesa duten pertsonen buruzko informazioa helarazten zaie.

Hori guztia aintzat hartuta, nekazaritza eta eskulangintza azoka udalaren herri gunetan egiten dela pentsatu behar dugu. Horregatik, Berangoko Udalaren organo eskudunari dagokio merkatua, baimendutako salmentarako produktuak, merkatari partaideen kopurua, azoka kudeatzeko modalitatea eta salmentarako baimenak esleitzeko prozedura eta beharkizunak zehaztea. Inola ere ezin eskuordetu



dakizkieke eskumen horiek azoka antolatzen laguntzen eta azoka sustatzen duten elkarteei.

Horrek guztiak publikoa izan behar du, eta salmenta ibiltarirako udal merkatuak eta aldizkako azokak egin aurretik. Hala bildu behar da, oro har, azoka antolatzeko, eta postuak esleitzeko prozedura ezarri behar da urteko deialdiaren bidez edo, hala denean, onetsitako udal ordenantzan

Erreklamaziogileak ondoren azoketan parte hartzea galarazteko zioei dagokienez, inkestagile batek "azoketako kontrol orria" izeneko formularioaren bidez eginiko salaketa baizik ez du aipatzen udalak, 2010eko maiatzaren 2an eginiko nekazaritza azokari buruzkoa. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eudelek Bizkaian sustaturiko nekazaritza azokak eta merkatuak antolatzeko lankidetzeta-hitzarmenetan ezarritakoen artean kokatuko litzateke dokumentua. Hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera -2004ko ekainaren 30eko bertsioan-, nekazaritza azokak eta merkatuak antolatzeko prozedurari buruzko eskuliburua, ekoizleen zerrenda eta azoka horien jarraipena egitea hitzartu zuen Nekazaritza Sailak. Halakoetan, foru sail horrek erakunde pribatuen (hala nola mendi nekazaritzako federazioen elkartea: Bizkaimendi) laguntzaz ikuskapen eta kontrol lanak egitea proposatzen zen.

Interesa duen edozein pertsonak edo administraziok du araudi aplikagarriaren kontrakoak izan litezkeen gertaerak salatzen eta agintaritzak eskudunari jakinarazteko aukera. Emandako informazioa ikusita, ez dugu nahikoa elementu "kontrol orria" izeneko dokumentua foru ikuskatzailearen ikuskapen-aktatzat edo Bizkaimendi erakunde pribatuak eginiko salaketa dokumentutzat hartzeko.

Nolanahi ere, salaketa eta jarraipen lan horiek ez dagozkieko administrazio kontrolari; tokiko administrazioen eskumena da hori edo, hala denean, osasun arloko administrazio eskudunena.

Berangoko Udalak, informazio hori ikusita, beharrezko eginbideak gauzatu zitzaizkeen araudiaren balizko arau-haustea egiaztatzen, ondoren zigor-espeditentia hasi ahal izateko. Hala eta guztiz ere, administrazio organo eskudunak ezar ditzake zigor neurri egokiak soil-soilik zigor espeditentia ebatzita, betiere legerian aurrez ezarritako bermeekin eginikoa.

Horrexegatik, horiek gogoeta guztiak ikusita, honako hauek helarazi behar dizkizugu:



Ondorioak

Udalak noizbehinkako merkatuak antolatzeko bere jarduna egiteko, Txikizkako Merkataritzaren Antolaketari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean eta salmenta ibiltaria edo salmenta ez sedentarioa arautzen duen ondorengo otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuan ezarritakoak bete beharko dira.

Udalek betearazi beharreko kontrol neurrien artean, baimena emateko prozedura publikoa dela bermatzea dago, baita baimena lortzeko eta parte hartzeko irizpide argien, errazen, objektiboen eta aurreikusteko moduko irizpideen arabera izapidetzen dela ere. Publizitate, gardentasun eta lehiaren printzipioak errespetatu behar dira salmenta-postuak hautatzean, eta ezin ezar daiteke beharrezkoa, neurritz kanpokoa edo diskriminatzailea den baldintzarik.

Halaber, kontuan izan behar da tokiko administrazioei dagokiela soil-soilik salmenta ibiltaria zaintzeko eta zigortzeko ahalmenaren ondoriozko baldintzak betetzen direla kontrolatzea eta ikuskatzea, betiere ekitaldi horietako zenbaiten erakunde antolatzaileekin ezar daitezkeen lankidetzak lanei kalterik egin gabe. Produktu kosmetikoen eta sendabelarren salmentari buruzko araudia betetzean, osasun administrazioari dagokio zigor ahalmena eta ikuskapena kontrolatzea.

Nolanahi ere, ezin ezar daiteke zigor neurririk zigor ahalmena erabiltzeko ordenamenduak dakartzan zehaztapenak eta prozedura jarraitu barik.

Horregatik guztiagatik, gomendio/iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA, Berangoko Udalari egina:

Ondorio horiekin eta lege ezarpenetan xedatu denarekin bat etorriz, hauek ebatz ditzala:

Salmenta ibiltariko udal merkatuetako eta noizbehinkako azoketako salmenta-postuak eskuratzeko eta esleitzeko prozedurarako irizpideak, nekazaritza eta eskulangintzako udal azoken urteroko deialdian edo, hala denean, udal ordenantzaren bidez.